



Puntuazioa: bi puntuak



Bi puntuek (:) erabilera ugari dituzte testuetan. Horietako bat EHULKUren aholku honen izenburuan ikusi dugu jada: bi puntuak izenburuetan azpiizenburuak sartzeko erabiltzen dira.

- Basoko mantenugaien balantzeak: inbentarioak eta eskala handiko esperimentuak
- Alkenoak naturan: intsektuen feromonak

Eta, halaber, izenburua osatzeko informazioa sartzeko:

- Oinarrizko softwarea: euskaraz erabiltzen duzu?
- Alberto Schommer: "Talentua da inportanteena, ez argazkigintza digitala"¹

(1) Elkarrizketa baten izenburua.

Gogoan izan: izenburuak dira, eta ez dute punturik eramaten amaieran.

Beste erabilera batzuk

Aipamenak, elkarriketak, gogoetak eta kontakizunak sartzeko:

- Gogoan dut emakumezko batek nola kontatzen zuen: “Banindoan eta han non ikusi nuen arbola bat, eta arbola gero eta hurrago, gero eta hurrago, bazetorkidan, bazetorkidan, azkenean jo ninduen arte”.
- Filosofo zaharrarekin batera esan beharko dugu: “Esana dago esana, dena esana, baina jendeak es du kasurik egiten, eta esan beharra dago behin eta berriz eta askotan”.
- Eta hizketan jardun nuen berarekin: “Zuk esango duzu hau eta hura, eta nik ere esango nuke hura eta hau...”.



Beste erabilera batzuk

Gutun, mezu eta abarren abiaburuan:

- Zuzendari jaun/andre hori:

...

- Adiskide maitea:

...

- Kaixo, Andoni:

...

Beste erabilera batzuk

Kataforaren ondoren:

(Katafora: ondoren datorrena iragartzen duen hitza.)

- Hizkuntza-antropologoen eztabaidagai nagusia **honako hau** da: zenbaterainoko eragina du hizkuntzak kulturean?
- «Xedatu» diodanean, **hau** esan nahi dut: kontuan hartu beharreko esperientziak mugatu eta, orobat, litezkeen emaitzen espektroa mugatu.
- Adibidez, **honako hipotesi hau** aurkitu dezakezu: inoiz aurkitu ditugun fosil guztiak Jainkoak jarri zituen lurrean gu nahasteko asmoz.



Beste erabilera batzuk

Zerrendaketa bat sartzeko:

- Hedadura bertikalari dagokionez, Coca-Colaren jarduera nagusiak hiru dira: produktua garatzea; marka kudeatzea eta kontzentratua egitea eta banatzea.
- Kamo ibaiaren ekialdean eraikitzeko arrazoiak bi izan ziren: naturaren edertasuna bilatzea eta hiriaren barruan zeuden eraikitzeko mugetatik ihes egitea.

Beste erabilera batzuk

Zerrendaketa bat ixteko, eta anafora baino lehen:

(Anafora: lehendik esandakoa laburbiltzen duen hitza.)

- Produktua garatzea, marka kudeatzea eta kontzentratua egitea eta banatzea: **horiek** dira, hedadura bertikalari dagokionez, Coca-Colaren jarduera nagusiak.
- Eskari-politikei esleitutako egiteko berria, interbentzio publikoak zenbait kasutan zurruntasunak sortu zituela ohartzea eta baikortasun gutxiago izatea: **horiek** dira 1980ko hamarraldian politika publiko arautzaile eta baliabide-esleitzailerak goitik behera aldatzearen atzean dauden faktoreak.

Beste erabilera batzuk

Azalpen, zehaztasun edo froga bat sartzeko:

- Egun badakigu, esate baterako, nondik datozen hegaztiak: ez ziren izan hutsetik sortuak (kreazionistek halaxe diote); aitzitik, dinosauroetatik eboluzionatu zuten, pixkanaka.
- Hegazti-espezie askotan, jardunaldi osoko bi guraso behar izaten dira: bat janari bila abiatzen denean, besteak arrautzak txitatzen ditu.
- Michigango Unibertsitateko Philip Gingerich-ek erakutsi zuenez, animalien tamainaren eta formaren aldaketa-abiadura askoz ere azkarragoa da laborategi- eta kolonizazio-azterlanetan, fosiletan baino: behetik jota, 500 aldiz azkarragoa, eta, goitik jota, ia milioi bat aldiz azkarragoa.

Beste erabilera batzuk

Alborakuntzaz uztarturiko bi esaldiren artean kausa-ondorio edo ondorio-kausa erlazioa dagoenean:

Kausa-ondorio erlazioa

- Egoera arriskutsua da: bat-batean hautsi daiteke pieza, inolako abisurik gabe.
 - Egoera arriskutsua da; **izan ere**, bat-batean hautsi daiteke pieza, inolako abisurik gabe.
- Nik esango nuke ordu erdia ere ez zeramala hilik: bero zegoen gorputza artean.
 - Nik esango nuke ordu erdia ere ez zeramala hilik, gorputza bero **zegoen-eta** artean.

Beste erabilera batzuk

Alborakuntzaz uztarturiko bi esaldiren artean kausa-ondorio edo ondorio-kausa erlazioa dagoenean:

Ondorio-kausa erlazioa

- Bat-batean hautsi daiteke pieza, inolako abisurik gabe: egoera arriskutsua da.
 - Bat-batean hautsi daiteke pieza, inolako abisurik gabe; egoera arriskutsua da, **beraz**.
- Burko baten gainera erori zen: ez zuen soinurik egin jausi zenean.
 - Burko baten gainera erori zen; ez zuen, **beraz**, soinurik egin jausi zenean.
- Goiz irten naiz etxetik: ez dut korrika egin behar metroa hartzeko.
 - Goiz irten naiz etxetik; **hortaz**, ez dut korrika egin behar metroa hartzeko.

Oharra

Bi puntuen ondorengoarekin amaitzen da esaldia.
Alegia, ez da zuzena honelakoak egitea:

- *Oro har, honako autore hauek: **Fidelus poloniarrak, Schollhörm, Palaut-ek, Lames-ek, Brown-ek, HughesMcGarry-k eta Franks-ek eta Vitori-k** sakondu dute gehien entrenamenduaren ikuspegi berri horretan.
- Entrenamenduaren ikuspegi berri horretan, oro har, honako autore hauek sakondu dute gehien: Fidelus poloniarrak, Schollhörm, Palaut-ek, Lames-ek, Brown-ek, HughesMcGarry-k eta Franks-ek eta Vitori-k.

Beste adibide bat

- *Askotan honelako esaldiak entzuten ziren: "haurraren erritmoa errespetatu behar da"; "notekin ikasle lehiakorrak sortzen dira"; "kalifikazioek ez diote ikasleari laguntzen bere ikaskuntzaren ardura hartzen eta ikaskuntza interpretatzen"; "garrantzitsuena ikasleen autoebaluazioa da; gainerakoa irakasleen botere- eta kontrol-ariketa da", zeinek irakasle askoren jarrera islatzen baitute, uste zuten-eta ebaluatzearen helburu bakarra ikasleak sailkatzea zela.
- Askotan honelako esaldiak entzuten ziren: "haurraren erritmoa errespetatu behar da"; "notekin ikasle lehiakorrak sortzen dira"; "kalifikazioek ez diote ikasleari laguntzen bere ikaskuntzaren ardura hartzen eta ikaskuntza interpretatzen"; "garrantzitsuena ikasleen autoebaluazioa da; gainerakoa irakasleen botere- eta kontrol-ariketa da". Esaldiok irakasle askoren jarrera islatzen dute, uste baitzuten ebaluatzearen helburu bakarra ikasleak sailkatzea zela.

Puntuazioa. Egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak liburuan duzu puntuazioari buruzko informazio gehiago.

GARZIA, Juan. *Puntuazioa. Egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak*, EIMA, Gasteiz, 2014.



www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-euskcont/eu/contenidos/informacion/dih/eu_5490/adjuntos/estilo_liburua/PUNTUAZIOA.pdf